



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko uztailaren 24a

87. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak salatzen baitu kontraforu dela Konstituzio Auzitegiaren 2014ko ekainaren 26ko epaia, 24/2012 Foru Legea baliogabetzen duena. Eledunen Batzarrak onetsia (2. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bitartez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten baititu Estatuko erakundeek Foru Komunitatearen eskubide historikoak mugatu edo ezabatzeko xedez eginiko jarduketak. Eledunen Batzarrak onetsia (2. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroaren autogobernuaren aldeko konpromisoa berresten baitu, eta autogobernu hori Nafarroak bere eskumenak zilegitasunez baliatuz darabilela baiteritzo. Eledunen Batzarrak onetsia (3. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Palestinarekiko elkartasuna, errespetua eta errekonozimendua adierazten baititu, eta doluminak ematen baititu Israelen Gazako zerrendan ezarritako zigor kolektiboaren biktima guztiengatik. Eledunen Batzarrak onetsia (3. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bitartez Nafarroako Parlamentuak bere arbuiorik erabatekoena adierazten baitu laneko istripuen eta lanbide-gaixotasunen mutualitateen araubide juridikoari dagokionez Gizarte Segurantzaren Lege Orokorra aldatzeko lege proiektua dela-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (4. or.).

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak salatzzen baitu kontraforu dela Konstituzio Auzitegiaren 2014ko ekainaren 26ko epaia, 24/2012 Foru Legea baliogabetzen duena.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko uztailaren 22an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak salatzen du kontraforu dela Konstituzio Auzitegiak 2014ko ekainaren 26an emandako epaia, zeinaren bidez baliogabetzen baita Parlamentu honek aho batez onetsitako 24/2012 Foru Legea, abenduaren 26koa. Epaia horrek, jadanik 2012ko azaroaren 14ko epaia adierazitako teoriari berriz heldurik, ukatu egiten du Nafarroak zerga-alorrean duen berezko ahalmen politikoa, Estatuko botere zentralarenari baldintzapetuta jarriz alor guztietan.

2. Nafarroako Parlamentuak aldarrikatzen du Nafarroak eskubidea duela politika berekiak

zehazteko, bai eta bere borondate tinkoa dela eskubide hori Espainiako Estatuko erakundeen esku-sartzeen aurrean defendatzea.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroaren subiranotasun fiskala defendatzeko konpromisoa hartzen du, eta Estatuko Gobernuari eskatzen dio berariaz aitortzea Nafarroak gai honetan duen jatorrizko ahalmena.

4. Nafarroako Parlamentuak erabaki du iraileko lehen hamabostaldian ohiz kanpoko Osoko Bilkura monografiko bat egitea, gaur egungo egoera larriaz jarduteko".

Iruñean, 2014ko uztailaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bitartez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten baititu Estatuko erakundeek Foru Komunitatearen eskubide historikoak mugatu edo ezabatzeko xedez eginiko jarduketak.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko uztailaren 22an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten ditu Estatuko erakundeek Foru Komunitatearen eskubide historikoak mugatu edo ezabatzeko xedez eginiko jarduketak.

2. Nafarroako Parlamentuak foru araubidearekiko eta Nafarroaren eskubide historikoekiko errespetua exijitzen die Estatuko erakundeei.

3. Nafarroako Parlamentuak deritzenez, leialtasun instituzionalaren nahitaezko baldintza da Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenekiko eta eskubide historikoekiko errespetua.

4. Nafarroako Parlamentuaren ustez, erakunde ezberdinen arteko ituna eta akordioa da Nafarroako foru araubidearen erabateko indarreko formula bermatzeko formula egokia".

Iruñean, 2014ko uztailaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroaren autogobernuaren aldeko konpromisoa berresten baitu, eta autogobernu hori Nafarroak bere eskumenak zilegitasunez baliatuz darabilela baiteritzo.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko uztailaren 22an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du Nafarroaren autogobernuaren aldeko konpromisoa, eta autogobernu hori Nafarroak bere eskumenak zilegitasunez baliatuz darabilela deritzo.

2. Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten du PPreu gobernu zentralak foru legeen aurka baliatzen duen Konstituzio Auzitegiaren aurreko errekurtsoen jartze sistematikoa.

3. Nafarroako Parlamentuak deritzo errekurtsio horiek PPreu gobernuak ez dituela Estatuaren eskumenen defentsan jartzen, baizik eta onetsitako foru legeen eduki zehatzarekin ideologikoki ados ez egoteagatik.

4. Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du PPreu gobernu zentralak erretiratu egin ditzan Konstituzio Auzitegiari Nafarroako zenbait legeren aurka aurkeztutako errekurtsioak, eta leialtasun instituzionaleko jarrera izan dezan Nafarroak egiten duen autogobernu-baliatze zilegiaren aurrean.

5. Nafarroako Parlamentuak nabarmentzen du Konstituzio Auzitegiak Nafarroako Parlamentuaren errekurtsioa ezetsiz 24/2012 Foru Legea baliogabetzeko eta lan-arloko erreforma babesteko emandako epaien larritasuna”.

Iruñean, 2014ko uztailaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Palestinarekiko elkartasuna, errespetua eta errekonozimendua adierazten baititu, eta doluminak ematen baititu Israelek Gazako zerrendan ezarritako zigor kolektiboaren biktima guztiengatik.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko uztailaren 22an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak Palestinarekiko elkartasuna, errespetua eta errekonozimendua adierazten ditu, eta doluminak ematen ditu Israelek Gazako zerrendan "Hegi Babesgarria" izenpean ezarritako zigor kolektiboaren biktima guztiengatik. Operazio horrekiko higuina azaltzen du eta Israeli eskatzen dio eraso horiek berehala geraraz ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuak nazioarteko legediaren araberrako eskaera hauek errepikatzen dizkio Israelgo Estatuari:

a) Arabiarren lurra okupatzeari eta kolonizatzeari utz diezaion, eta lege kanpoko harresia bota dezan.

b) Israelen bizi diren palestinarrei oinarritzko eskubideen berdintasun erabatekoa berma diezaion.

c) Palestinar errefuxiatuek itzultzeko duten eskubidea susta, babes eta errespetu dezan, Nazio Batuen 194. ebazpenak aitortzen duen bezala.

d) Nazio Batuetako informatzaileen araberr gerra-krimenak egin ditzutenek krimen horiek direla-eta nazioarteko auzitegietan erantzunen dutelako bermea.

3. Nafarroako Parlamentuak nazioarteko erki-degoari eskatzen dio ahal diren baliabide guztiak jar ditzan, Israeli bere lege-betekizunak betetzeko presioa egite aldera, Zuzenbide Estatu sendotze aldera eta palestinarren bakea eta segurtasuna babeste aldera, Palestinako herriaren oinarritzko

giza eskubideen errespetua barne. Hori horrela, eta Israelek palestinarrei inposatzen dien apartheid-politikak dirauen bitartean, adierazten du asmoa duela BDS (boikota, desinbertsioak eta zehapenak) kanpainarekin bat egiteaz hausnartzeko, eta herritarrei dei egiten die horrelako ekintzak gogoan izan ditzaten.

4. Nafarroako Parlamentuak herritarrei gonbit egiten die Israelek Palestinari ezarritako zigorra salatzeko antolatzen diren ekintzetan parte hartzea, eta horrela palestinar herriarekiko beren elkartasun eta hurbiltasuna erakustera.

5. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio igor diezaien adierazpen hau, Kanpo Arazoetako Ministerioaren bidez, Israelgo erakunde eskudunei. Halaber, erakunde horiei dei egiten die hartutako konpromisoak bete ditzaten, eta berma dezaten Gazako blokeoa bertan behera uzten dela eta ez direla urratzen edozein amaiera-akordiotako funtsezko partaidetzat hartu behar den palestinar herriaren giza eskubideak.

6. Nafarroako Parlamentuak Europar Batasunari eta Espainiako Estatuko gobernu zentralari eskatzen die Europar Batasunaren eta Israelen artean indarrean dagoen elkar-hartze akordioa eten dadin, akordio horretako bigarren artikulua (giza eskubideen errespetua) urraketa dela-eta.

7. Nafarroako Parlamentuak nazioarteko erkidegoa premiatzen du presio diplomatikoa areagotzera, eta alderdi guztiei dei egiten die ahalegin serio eta sinesgarriak egin ditzaten israeldarren eta palestinarren arteko zuzeneko bake-elkarriketei jarraipena emateko, eta su-eten bat eta bi alderdiek indarkeria-ekintza guztiak berehala gerraraztea adostu dezaten; horrez gain, nazioarteko zuzenbide humanitarioa errespetatzera deitzen ditu".

Iruñean, 2014ko uztailaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bitartez Nafarroako Parlamentuak bere arbuiorik erabatekoena adierazten baitu laneko istripuen eta lanbidegaixotasunen mutualitateen araubide juridikoari dagokionez Gizarte Segurantzaren Lege Orokorra aldatzeko lege proiektua dela-eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko uztailaren 22an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak bere arbuiorik erabatekoena adierazten du Gizarte Segurantzaren Lege Orokorra laneko istripuen eta lanbidegaixotasunen mutualitateen araubide juridikoari dagokionez aldatzeko lege proiektua dela-eta, eta proiektu hori erretiratzeko nahia aldarrikatzen du, proiektuak eskumen gehiago ematen dizkielako mutualitateei, langileek duten osasunerako eskubidearen kaltetan, eta osasun-sistemaren pribatizaziorantzko beste urrats bat delako.

2. Nafarroako Parlamentuak azaltzen du bere nahia dela Nafarroako Gobernuak eraginkortasunez ziurta dezan Nafarroako langileek duten osasunerako eskubidea, Lan Osasuneko arduraduen

esku-hartzearen bidez eta haiek langileen osasunaren jarraipen zorrotza eginez.

3. Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere nahia dela Nafarroako Gobernuak bere eskumenak erabil ditzan, osasun-sistema publikoa eraginkortasunez defenda dezan, eta bere esku dagoen orotan mutualitateen eskumenak mugatu ditzan:

- Mutualitateekin beren baliabideak erabiltzeko hitzarmen edo itun gehiago ez sinatuz.

- Osasunbidean inbertituz eta laneko osasuna zenbait mutualitateen ardurapean daukaten funtzio publikoko langileak, 15.000 inguru, pixkanaka han integratzeko plan bat eginez, mozkinak sistema publikora birbideratuz".

Iruñean, 2014ko uztailaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera